

berria



ERROMATARREN BAINUETXE BAT AURITZEN

Aranzadi zientzia elkarteak erromatarren garaiko termak aurkitu ditu Auritzen egindako indusketetan.

UDAGIRO • 32



Piztu da festa Baionan

Diakite elkarteak eman dio hasiera festei irekitze alternatiboan; etorkinen elkartasun taldea da

- Irekiera ofizialean, Avirongo errugbilariek hasi dute festa, milaka lagunen artera herriko giltzak botata. Igandera arte luzatuko dira.

UDAGIRO • 38-39

Hasiera. Diakite elkarteak egin du txupinazo alternatiboa.

GUILLAUME FAUVEAU



Jazzaldia. Joan Baezek ireki du, bertsioak harilkatuz

UDAGIRO • 30

JON URBE / FOKU

Memoria historikoaren herri ekinaldi legegilea alboratu dute, Jaurlaritzak ere egiteko asmoa duelako

EUSKAL HERRIA • 9

Pinuaren gaitzari aurre egiteko, airez ere fumigatzen hasiko dira

EUSKAL HERRIA • 6

Etorkin adingabeak, aterpe batzuen abaroan

UDAKO SERIEA •

MEDITERRANEOKO MUGAN (III)

MUNDUA • 16-17

Ertzaintzaren arabera, amak hil du Azpeitian itotako lau urteko umea

EUSKAL HERRIA • 10



TONAKA LINDANO LURPERATUTA

Lemoizko zabortezi zaharren azpian 10.000 tona daude. Jaurlaritzak 1989tik dauka lur kutsatu horren berri

HARIAN • 2-5

LUIS JAUREGIALIZO / FOKU



Indusketaren ezker aldera ageri diren zutabetxo horiek frogatzen dute termetako berogailu sistema bat izan zela eraikin horretan. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Termak Pirinioen magalean

Aranzadi zientzia elkarteak erromatarren garaiko bainuetxe baten aztarnak aurkitu ditu, Londresko Arkeologia Museoarekin batera hiru astez Auritzen egindako indusketetan

Joxerra Senar Iruñea

Ikertu, neurtu, hipotesia landu, frogatu eta ondorioztatu. Metodologia zientifikoa neketsua bezain zorrotza da, baina, azkenean, emaitzak argia igortzen du. Duela bi urte, Auritz ondoko Zalduea eremuan (Nafarroa) egindako indusketak arkeologikoan, erromatarren garaiko harrizko eraikin baten arrastoak aurkitu zituen Aranzadi zientzia elkarteak. Harrizko egiturak aditzera eman zien ikerlariei hura eraikin garrantzitsua izan zela Zalduea kokagune erromatar hartan, eta azken bi udatan egindako kanpamentan eraikin horren funtzioari buruzko hipotesiak landu dituzte. Aurten bildutako aztarnen esker, jakin ahal izan dute azkenik Pirinioen magalean bainuetxe bat izan zela erromatarren garaian, edo bederen bolada luze batean.

Izan ere, harrizko eraikin hark gutxienez hiru mende eta erdi iraun zuen zutik: «350 urte horietan, eraikinak bizitza eta eraldaketa ugari izan ditu, eta, horregatik, ez dakigu urte horietan guztietan termak izan ziren, baina bai

gutxienez hainbat fasetan bainuetxe publikoa izan zela», azaldu du Oihane Mendizabal Aranzadiko ikerlaria.

Ekhone Garcia Aranzadiko ki-dearekin eta Londresko Arkeologia Museoako beste bi kidearekin batera, hiru astez indusketa zuzendu du Mendizabalek. Gainera, Arkeologia ikasten ari diren hamalau boluntario izan dituzte lagun. Aurizko Udalaren laguntza eskertu dute, eta azpimarratu dute aurrera egiteko finantzaketa behar dutela. Igandean, 11:00etatik aurrera, ateak irekiko dituzte Auritzen, Zalduea eremuan, egindako lana azaltzeko.

Hipokaustoaren aztarnak

Mendizabalen arabera, aurreko urtean egindako indusketan ere eraikinaren funtzioari buruzko hipotesia lantzeko aztarnak bildu zituzten, baina «testuingururik gabe». Aurten, ordea, puzzle hori osatzeko frogak aurkitu dituzte. Nola? Terma erromatarretan igerileku bero eta hotzak, aldagelak eta ataria egon ohi ziren. Igerileku beroetan, berriz, hipokausto ize-neko berogailu sistema erabili ohi



Harrian, itxura antropomorfoa duen grabatua ageri da. J. MANTEROLA / FOKU

zuten: inguruko labe batean berotutako airea mugitzeko, hutsune bat sortzen zuten, eta aire ganbera hori metro erdi inguruko zutabetxo batzuen bidez sostengatzen zuten. Era berean, airea behetik gora mugitzeko, horman beste hutsune bat eratzen zuten.

Hain zuzen, hipokaustoaren zutabetxo horien aztarnak atze-

man dituzte: borobil formako adreiluak eta adreilu karratuak. Azken horiek «tokian bertan» zeuden, eta zoruan adreiluen markak aurkitu dituzte. «Gainera, zutabetxo horien inguruko geruza kolore beltzekoa da; labearekin konektatuta zegoenez, ikatzak eta keak zikindu egingo zuten», azaldu du Mendizabalek.

Eraikinak gauza asko ditu argitzeko oraindik. Adibidez, datozten urteetan jarraitu nahi duten ikerketan termen beste aretoen aztarna gehiago ager daitezke, baina bestelako ezustek ere gorde ditzake. Izan ere, eraikinaren zati baten indusketa besterik ez dute egin bi urteotan. Uste dute 600



350 urte horietan, eraikinak eraldaketa ugari izan ditu, eta ez dakigu urte guztietan termak izan ziren»

Oihane Mendizabal
Aranzadiko ikerlaria

metro koadroko azalera izan zuela gutxienez. «350 urte horietan, etengabeko aldaketak eta birmoldaketak izan zituen, eta nahiko zaila da interpretatzea garai bakoitzaren zein zen eraikinaren itxura edo hedadura».

Hain eremu txikian garai zabal horrek utzitako arrastoen interpretazioa egiteak badu konplexutasuna. Adibidez, gaur egun Zalduean oinezko orok zapaltzen duen zoru bat gorago zegoen duela bi mila urte. Epe luze horretan ebatsi diren harriek edo erosioak zaildu egiten dute ikerketa. Hain zuzen ere, Londresko Arkeologia Museoaren espezializatuta dago hirigune erromatarren indusketa arkeologikoan: «Londresen erabili ohi dugun sistema erabiltzen laguntzen diegu boluntarioei. Baliagarria da geruza oso sakoneko eraikinak indusketak eta ulertzeko», azaldu du Carla Tommasino museoaren ikerlariak.

Grabatu «berezia»

Aurten, badago beste aurkikuntza nabarmen bat. Harri batean, itxura antropomorfoa duen irudi bat agertu da, eta, haren azpian, hiru hizki: T, E eta hirugarren letra baten zati bat. Goiz da ezer ondorioztatzeko, baina, Aranzadik kontsultatutako adituen arabera, «berezia» da. Nafarroan «hatzarekin zenba daitezke» antzeko grabatuak, Mendizabalen esanetan.

Oraindik ere galdera ugari dauka erantzuteko. Erromatarren kokaguneak lau hektarea eta erdi hartu zituen, eta haren zati txiki bat besterik ez da ikertu orain arte. Adibidez, ez da egiaztatu haren izena: garai hartako idatzietan agertutako *Summun Pirineum* edo *Iturissaizan* liteke, baina, metodologia zientifikoko eskatzen duen frogarik gabe, ez dago ezer zehatz-mehatz ziurtatzerik.